

ALDIZKARIA kontsumoBIDE

22.ZK URTARRILA - MARTXOA 2015

WWW.KONTSUMOBIDE.EUS

ORDAINTZEKO MODU BERRIAK

Kontakturik gabeko edo *contactless* ordainketa-txartelek nola funtzionatzen duten azalduko dizugu.

MERKEALDIRAKO 10 GOMENDIO


Erosketak zentzuz egiteko gomendioak emango dizkizugu; izan itzazu kontuan!

KONTSUMOBIDEREN PLAN ESTRATEGIKOA

2014-2018 plana aurkeztuko dugu; Euskadiko kontsumitzaile eta erabiltzaileak babesteko bidea zehazten du plan horrek.

ENERGIA AURREZTU!

Ikas ezazu energia aurrezten etxetresna-elektrikoak modu eraginkorragoan erabiliz



kontsumoBIDE

KONTSUMOKO
EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO
DE CONSUMO

PERTSONA
HELBURU



EUSKO JAUKLARITZA
GOBIERNO VASCO

Sarrera

Kontsumobidetik ongietorria eman nahi dizuegu gure hiruhileko aldizkariaren formatu berri honetara. Diseinua eta edukia aldatu ditugu eta monografiko izatetik, askotariko gaiei buruz arituko da argitalpena aurrerantzean. Hemendik aurrera, aldizkariaren ale bakoitzean askotariko artikuluak aurkitu ahal izango dituzu, kontsumoari buruzko azkenaldiko berriak, kontsultak, elkarrizketak eta abar.

Kontsumobide aldizkariaren 22. zenbakian energia aurrezteaz mintzatuko gara, kontakturik gabeko ordainketa-moduak azaldu, 'Kontsumobide Jolasean' jolaserako eta prestakuntzarako programa aipatuko dugu, baita beste zenbait gai interesgarri ere.

EDUKIAK

4 Kontsumoa gaur

6 Artikuluak

Aurreztu energia!

Ordaintzeko modu berriak

Kontsumobideren Plan Estrategikoa

11 Gaia da / Merkealdia

14 Prestakuntza / Kontsumobide Jolasean

15 Araudia / Elikagaiak eta glutena

16 Kontsultak

17 Kontsumo-alegiak



MERKEALDIA

11

Merkealdian segurtasunez erosteko zer jakin behar duzun azalduko dugu.





Kontsumo txikiko bonbilak



Europar Batasunean egiten diren bonbila guztiak kontsumo txikikoak dira. Bonbila horiek goritasun-lanparek baino elektrizitate gutxiago erabiltzen dute (% 50- % 80 gutxiago) argi kantitate bera egiteko.

2012. urtean utzi zitzaion goritasun-lanparak fabrikatzeari, baina aleren bat topa dezakegu oraindik dendetan.

Kontsumo txikiko hiru bonbila mota daude:

LED

LED (argia igortzen duten diodoak) bonbilak dira efizienteenak. Berehala lortzen dute distira, doitu egin daitezke eta kolore asko dituzte aukeran. Gainerako bonbilak baino garestiagoak dira, baina oso energia gutxi kontsumitzen dute. Askoz ere gehiago irauten dutenez, epe luzera merkeagoak dira.

Fluoreszenteak

Ohikoenak dira; hainbat forma izan ditzakete eta distira-maila

gorena lortzeko denbora behar izaten dute. Kontsumo txikiko bonbilak oso efizienteak dira, baina ez LEDak bezainbeste.

Halogenoak


Bonbila horiek goritasun-lanparen antzeko ezaugarriak dituzte, baina elektrizitatea %40 gutxiago kontsumitzen dute eta distira-maila gorena ia berehala lortzen dute. Alabaina, fluorezenteek edo LED bonbilek baino efizientzia-maila txikiagoa dute eta, beraz, merkeagoak izan arren, epe luzera garestiagoak dira.

Jostailuak eta CE marka

14 urtetik beherako 80 milioi adingabe daude Europar Batasuneko jostailuen merkatuan. Jende asko izaki, **EBk lehenatasunez murriztu nahi du jostailuen istripu-arriskua** bere kontsumo-politikaren bitartez.

Horregatik, enpresa jostailugileek segurtasun-arauak bete behar dituzte CE marka lortzeko.

CE marka baldin badu, Europar Batasunak eskatzen dituen **segurtasun-baldintzak bete egiten ditu jostailu horrek**. Ikusteko moduan egon behar du jostailuaren bilgarrian, ezabaezina izan behar du eta gutxienez 5 mm-ko altuera izan behar du. Jostailuren bat erosi baino lehen, **egiaztatu produktuak badituela bi letra horiek**.



CE marka eta haren proportzioak. Egiaztatu ontzian CE modelo hori berdin-berdin agertzen dela, ez modeloaren antzeko bertsio aldaturen bat..



Pantaila handiak baino efizienteagoak

Europako Batzordeak telebista eta ordenagailu-pantaila handien diseinu ekologikoagoa eta efizienteagoa ezartzeko arauak eman ditu; izan ere, gailu horiek energia asko kontsumitzen baitute.

Araudi hori 2016. urtean sartuko da indarrean eta ez du pantailen tamainan eragingo, barruko osagaietan baizik. Horretaz gain, pantaila guztiek energia-etiketa izan beharko dute, bakoitzaren efizientzia-maila zein den jakiteko.

Telebistek etxeko elektrizitatearen % 10 kontsumitzen dutelako ezarri da araudi hori, eta ehuneko hori handitzen ari da, besteak beste, fabrikatzaileek pantaila gero eta handiagoak egiteko joera dutelako.



Elikadura

Erne patatekin!

Patata gure dietako elikagai nagusietako bat da, eta era askotan prestatzen da mundu osoan. Horregatik, patata protagonista edo hornigai nagusi izan ohi da plater askotan.

Patata funtsezkoa da gure elikaduran, baina egoerarik onenean kontsumitu behar da. Klima, lurra eta biltegitzeko modua dira faktore nagusiak patataren kalitateari eusteko. Baldintza egokiak betetzen ez badira, akats txikiak ager daitezke eta patataren kalitatea eta kontserbazio-egoera kaltetu. Ez erosi inoiz kolpe-markak, kolore berdexka edo pujak dituzten patatak, produktuak badaezpadako kalitatea duela adierazten baitute.

Patata egoera onenean kontsumitu behar da

Orban berdeak edo pujak aurkituz gero, kendu egin behar dira, solanina baitute. Substantzia toxiko horrek urdail-hesteetako ondoeza edo nahasmendu neurologikoak eragin ditzake. Beraz, hobe da kaltetutako zati horiek labana batekin kentzea. Orban edo puja gehiegi baldin baditu, bota ezazu patata osoa.

Gainera, patataren zatiren bat ustelduta baldin badago, gainerako patatak ez kutsatzeko hobe izaten da patata hori multzotik kentzea. Patata zuritu aurretik eta ondoren garbitzea ere komeni da: azalean pestizidak edo zikinkeria-arrastoak izan ditzake.

RAPEX sistemak 10 urte bete ditu



RAPEX

Produktu guztiek ez dituzte betetzen ezarritako segurtasun-arauak; horregatik, zenbait produktu arriskutsutzat har daitezke. Kontsumitzaileentzako produktu arriskutsu horiek (ez elikagaiak) identifikatzeko, EBak alerta bizkorreko RAPEX sistema bateratua dauka; hari esker, produktu horiek identifikatu eta merkatutik atera ahal dira.

RAPEX bidez profesionalek informazioa jaso, eta EBko estatu

kideetako merkatuak kontrolatu eta ikuskatu ahal dituzte. Sistema horren bidez jakiten da produktu arriskutsu baten inguruan zer neurri hartu dituzten gainerako herrialdeetan, norberaren herrialdean ere ezarri ahal izateko.

RAPEX sistema 2004. urtean sortu zen, eta hamar urte horietan milaka produktu arriskutsuri buruzko alerta eman da. Urteak joan, urteak etorri, alerta kopuruak gora egin du: hasieran 400 bat alerta jasotzen ziren, baina 2013. urtean 2.000tik gora izan ziren.

Kontsumobideren webgunean merkatuan detektatu diren azken alerten zerrenda kontsulta daiteke, baita ezarri diren neurriak ere.

ENERGIA AURREZTU!

Elektrizitatearen prezioa garestitzearekin batera, familia askok honako galdera hau egin diote beren buruari: zer egin dezakegu gutxiago ordaintzeko?

Egia esan, etxetresna elektrikoak erosteko eta erabiltzeko garaian, dirukopuru esanguratsua aurrez dezakegu jarraibide jakin batzuk aintzat hartuz gero .

Zure etxeko premietara **hobekien egokitzen den etxetresna elektriko**a erosi ezazu beti; kontuan izan hozkailu edo telebista handi batek txikiago batek baino elektrizitate gehiago kontsumituko duela.

Gailu efizientea erostea garrantzitsua da, baita erraza ere **etiketa energetikoari** esker. Etiketa horretan, energia-efizientzia klasea agertzen da, bai eta gailuak urtean zenbat energia kontsumitzen duen ere.

Energia-etiketan 7 kategoria daude: A letratik –efizientzia-maila handiena– G letrara –efizientzia-maila txikiena–. Efizientzia-maila handieneko tresnak garestiagoak dira, baina energia-kontsumo txikiagoarekin konpentsatzen da diru hori.

Erreparatu *standby* egoerari

Etxetresna elektriko askoren kasuan, itzalita daudela uste baduzu ere, elektrizitatea kontsumitzen jarraitzen dute. Kontsumo hori murriztu dezakezu gailua erabiltzen ez denean deskonektatzen baduzu.

Kontuan izan etxeko elektrizitate-kontsumoaren erdia, gutxi gorabehera, eragiten dutela zenbait gailuk (telebistak, DVDak, bideo-kontsolak, deskodegailuak, ordenagailuak...) *standby* egoeran.



Zure etxetresna elektrikoek zarata arraroren bat egiten badute, edo behar ez bezala ari direla sumatzen baduzu, erne horri. **Behar ez bezala funtzionatzen badute, energia gehiago kontsumitu dezakete etxetresna elektrikoek.**

Gainera, etxetresna elektrikoak egoki erabiliz gero, elektrizitate-fakturaren zenbatekoa gutxitu egin daiteke. Aintzat hartu gomendio hauek zure etxean energia aurrezteko:



Ontzi-garbigailua

➤ Jarri ontzi-garbigailua martxan erabat beteta (baina ez gainkargatuta) dagoenean soilik. Karga beteko garbaldi bat eraginkorragoa da karga erdiko bi garbaldi baino.

➤ Platerak garbigailuan sartu aurretik, kendu janari-soberakinak sardexkarekin; baina ez pasatu uretan.

➤ Ez erabili lehortze automatikoa. Garbiketa-prozesua amaitutakoan, ireki atea apur bat eta platerak berez lehortuko dira.



Hozkailua eta izozkailua

➤ Ez konfiguratu hozkailua oso tenperatura txikian; bestela, hezetasun handiegia sortuko da eta elektrizitate gehiago kontsumitu beharko du tenperatura hotzagoari eusteko.

➤ Izozkailu barruko izotza kendu aldi berean. Antzigarra metatzen bada, gailuaren energia-efizientzia murriztu egiten da.

➤ Hotzik gal ez dadin, egiaztatu atea hermetikoki ixten direla. Proba egiteko, itxi ezazu atea, paperzerrenda bat zirrikitan utzita, erdia hozkailuaren barruan eta erdia kanpoan. Papera erraz atera ahal baduzu, goma aldatu edo egokitzea komeni zaizu; edo agian gailu berria erosi beharko duzu.

➤ Elikagai edo likidoak hotzik daudela sartu behar dira, eta estalita. Ez badira estaltzen, hezetasuna askatzen dute eta konpresoreari lan handiagoa eginarazten diote.

➤ Hozkailua zabaltzen duzun bakoitzean aire hotzaren % 30 ateratzen da. Elikagaiak sartu edo atera behar badituzu, hobe da atea behin zabaltzea askotan baino.



Garbigailua

➤ Energia aurrezteko, erabili abiadura txikiko zentrifugazioa eta lehortu arropa aire zabalean.

➤ Garbitu arropa ur hotzarekin, ahal den guztietan.

➤ Bete ezazu makina. Karga beteko garbaldi bat eraginkorragoa da karga-erdiko bi garbaldi baino.



Bulegoko tresneria

➤ Itzali ordenagailua eta pantaila erabiltzen ez direnean.

➤ Deskonektatu kargagailuak. Ez utzi mugikorra edo kamera entxufatuta, kargatuta baldin badaude. Entxufatuta uzten badituzu, kargagailuak elektrizitatearen % 95 kontsumitzen jarraituko du.

➤ Erabili energia aldetik efizienteak diren tresnak. Hartara, energia aurrezteaz gain, tresnak aire girotuaren karga murriz dezake, baita haizagailu eta transformadoreen zarata eta monitoreen eremu elektromagnetikoen emisioak ere.


Erabili etxetresna elektrikoak zentzuz, eta elektrizitate-fakturan zenbateko esanguratsua aurreztuko duzu. ■

Energia-efizientziaren maila adierazteko hainbat koloretako geziak eta letrak erabiltzen dira: geziak berdetik gorrira doaz, eta letrak A-tik G-ra.

A+++ eta A++ dira kontsumo-maila txikieneko garbigailu, ontzi-garbigailu, hozkailu eta izozkailuak.

A+ eta **A**, berriz, telebistak.

A, azkenik, aire girotuko gailuak.



Hozkailu baten energia-etiketa

ORDAINTZEKO MODU BERRIAK

CONTACTLESS TXARTELA

Gaur egun, oso ohikoa da kreditu- edo zordunketa-txartelaren bitartez ordaintzea. Horregatik, azkenaldian ordainketak egiteko modu berri bat sortu da: **kontakturik gabeko ordainketa**, contactless teknologiaz baliatuta; gero eta banku-erakunde gehiago hasi dira modu hori erabiltzen.

Banku-txartelen hornitzaileak gero eta gehiago ari dira *kontakturik gabeko ordaintze-teknologia* txertatzen txarteletan. Era berean, gero eta saltegi gehiagotan onartzen dute ordaintzeko modu hori, nahiz eta oraindik zalantza asko eragiten dituen funtzionamenduari eta segurtasunari dagokienez. Artikulu honetan, horrelako txartelei buruzko ohiko galderari erantzun diegu.

Zer da, zehazki, *contactless* edo kontakturik gabeko ordainketa?

Banku-txartela irakurgailu batean sartu gabe ordaintzeko modua da. Itxuraz, txartel arrunta ematen du; baina arreta handiagoz aztertzen badugu, txip bat duela ikusiko dugu, baita uhinak dituen ikono txiki bat ere; ikono horrek kontakturik gabeko ordainketa irudikatzen du.

Teknologia hori etengabe ari da aurreratzen; gaur egun, **beste gailu batzuen bitartez ere egin daitezke kontakturik gabeko ordainketak**; esaterako, telefono mugikorren bitartez.

Nola funtzionatzen du?

Contactless txartelek txip berezi bat izaten dute; txip horrek irrati-maiztasuneko antena ñimiño baten egitekoa betetzen du. **Txip horri esker, ordainketa-informazioa haririk gabe transmititzen da.** Kontakturik gabeko txartela erabili ahal izateko, hornitzaileak irakurgailu berezia izan behar du, datuak jaso eta ordainketa prozesatzeko.





Prozedura oso sinplea da: txartelak irakurgailuaren ondoan egon behar du segundo pare batez, gailuak transakzioa erregistratu eta onar dezan.

Horretaz gain, **20 euro baino gutxiagoko erosketak eginez gero, ez da beharrezkoa PIN kodea idaztea**; beraz, ordainketa txikiak asko arintzen dira. Alabaina, zure segurtasunagatik, 20 euro edo gehiagoko erosketak baldin bada, PINa idatzi beharko duzu.

Segurua al da contactless txartelekin ordaintzea?

Ordaintzeko modu hori segurua da. Transakzioa zuzen burutzeko, txartela irakurgailuaren parean jarri behar da aldi batez, 4 bat zentimetrotara edo gutxiagora.



Txartelak honelako ikonoa izan behar du kontakturik gabeko ordainketak egin ahal izateko

Hortaz, ezinezkoa da transakzio bat egitea, demagun, irakurgailu baten ondotik oinez igarotzen bazara. Txartela galtzen baduzu edo lapurtu egiten badizute, gehienez 20 euroko erosketak egin ahal izango dituzte PINa sartu gabe.

Gainera, txartel-hornitzaile gehienek iruzurrezko erabileraren aurrean babesten gaituzte. Txartela falta zaizula konturatu bezain laster, zure banku-erakundeari jakinarazi behar diozu.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, 20 eurotik beherako erosketetan ere PINa idatzi behar izatea eska dezakegu. Zenbait kasutan, PINa idaztea eskatuko dizute, kontakturik gabeko ordainketa egin beharrean. Kasu horiek ausaz hautatzen dira eta segurtasun-prozedura estandar bati dagozkio.

Kutzazain automatikoetan erabil al daitezke?

Kutzazain automatikoetan erabili ahal izateko, kutxazainak irakurgailua izan behar du; baldin badu, txartela hurbiltzen duzunean kutxazainaren pantailan menu nagusia aktibatuko da. Edozein eragiketa egiteko PINa idatzi beharko duzu.

Nola lor daiteke *contactless* txartela?

Horrelako txartela nahi baduzu, zoaz zure banku-erakundera eta inprimaki bat bete beharko duzu. Normalean ez du kostu gehigarririk eragiten. **Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsulta ezazu zure erakundearen.** ■



Kontsumobideren Plan Estrategikoa

Herritarrak izateaz gain, azken urteetan garrantzi berezia hartu du kontsumitzaile gisa merezi dugun arreta ere. Izan ere, praktikan, "kontsumo gizartean" merkatua da guk behar ditugun ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko baliabide bakarra.

Egoera horretan, halako behar konkretu batzuk ditugu, kontsumitzaile moduan. Besteak beste, hau **BEHAR DUGU**:

*Zer eskubide eta betebeharrak ditugun eta horiek eraginkor betetzeko zer egin behar dugun argiro adieraztea;

*Kontsumoaren inguruko tailer eta bestelako prestakuntza-saio praktikoetan, gizatalde guztiei (ikasleak, irakasleak, gurasoak, adinekoak, profesionalak...) egokituak, parte-hartzeko aukera ematea;

*Guk planteatzen ditugun kontsultei behar bezalako arreta egitea, zalantzak argitzeko;

*Eskubideak urratu zaizkigula uste dugunean, egin beharreko erreklamazio, salaketa nahiz kexa egiteko erraztasunak ematea;

*Gure erreklamazioak egoki izapidetzea eta artekaritza zein, egokituz gero, arbitraje-lanak erraztea, aldean artean adostasuna bultzatzeko nahiz auzia epaitegitik kanpo konpontzeko;

*Administrazioak merkatuan egin beharreko ikuskapenak egitea, merkaturatzen diren produktuak osasunaren eta segurtasunaren kontrakoak ez direla bermatzeko eta seguruak ez direnak merkatutik kentzeko.

Kontsumobide eta 2014-2018 Plan Estrategikoa

Kontsumitzaile eta erabiltzaile garen heinean dagozkigun eskubideak babestu behar ditugu; horretarako, Kontsumobide dugu erreferentzia Euskadin, KIUBekin eta kontsumitzaile-elkarteekin batera.

Bere eginkizunaren garrantziaz jabeturik, gogoeta-lan nabarmena egin du Kontsumobidek datozen urteetan heldu beharko dien erronka handiei antza hartzeko eta 2018 helmugarako oinarri estrategikoak eta jardute-plan, helburu eta ekintza berriak xedatzeko.

Gogoeta-lan hori dokumentu batean islatu da, «**Kontsumobideren 2014-2018 Plan Estrategikoa**», hain zuzen, zeinak Euskadiko kontsumoaren arloko profesionalek beren eginkizunean aurrera egiteko –Euskadiko kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babestea, hain zuzen– egin beharreko ibilbidea definitzea baitu helburu. ■



ZENTZUZKO EROSKETA EGITEKO GOMENDIOAK

Neguko merkealdiari ahalik eta etekin handiena ateratzearren, **zer behar dugun** jakin behar dugu, eta **erosketa konpulsiboak saihestu**.

Gabonak amaitu ondoren hasten da merkealdia, eta deskontu interesgarriak aurki ditzakegu garai horretan. Jendeak merkealdia aprobetxatzen du gustuko produktuak prezio merkeagoan erosteko.

Baina erosketak egitera joan aurretik, komeri da zer behar duzun pentsatzea. Aldez aurreko lan hori egitea benetan baliagarria da erosketa konpulsiboak saihesteko, eta egiaz erabiliko dituzun produktuak baino ez erosteko.

Aurrekontua prestatzea eta diru kopuruari muga jartzea ere lagungarri izango zaizkizu zentzuzko

erosketa egin, eta benetan behar duzun hori hautatzeko. Merkealdirako ideia bat proposatuko dizugu: utzi alde batera kreditu-txartela eta ordaindu eskudirutan; gastua hobeto kontrolatuko duzu.

Saltokien webguneak ere ikus ditzakezu, zer eskaintzen duten jakiteko. Hartara, jakingo duzu zer artikulu eskaintzen dituzten eta zenbateko beherapena duten. Hori egindakoa, presta ezazu erosketak egiteko ibilbidea eta, horrela, ez duzu denbora galduko interesatzen ez zaizkizun tokietan.



Ez ahaztu produktu txar bat prezio merkean erostea ez dela pagotxa.



Zentzuzko erosketak

Merkealdiari etekina ateratzeko, luzaroago erabil daitezkeen artikuluetan inbertitu behar da, beste denboraldi batzuetan ere balio izango dutenetan, alegia; hala nola, beroki bat, bakeroak edo zapatak.

Merkealdiaren **hasierako egunetan joaten bazara**, behar dituzun produktuak aurkitzeko aukera handiagoa izango duzu, bukatu baino lehen. Dena den, merkealdia hasi, eta zenbait egun geroago joanez gero, prezio merkeagoak aurkituko dituzu; baina hasierako egunetan baino aukera txikiagoa izango da.

Ez erosi presiopean; presioak behar ez duzuna erostera bultza zaitzake. Oso-oso merke dauden produktuekin ere kontuz ibili. Egiaztatu kalitate onekoa dela eta iraun egingo duela. Ez ahaztu kalitate

txarreko produktu txar bat prezio merkean erostea ez dela pagotxa.

Prezioa behar bezainak ez du esan nahi produktuen kalitateak ere behera egin behar duenik. Izan ere, dendetan ezin dituzte hondatuta dauden produktuak saldu merkealdian, ezta merkealdia hasi baino hilabete lehenago salgai ez zegoen produkturik ere. Kalitateak berdina izan behar du; horregatik, erosten dituzun produktuak (arropa edo dena delakoa izan) ongi aztertzea gomendatzen dizugu.

Bermea eta kalitatea ez dira aldatzen behar bezainak produktuan. Produktua merkealdian edo merkealditik kanpo erostea ere, bermealdia berdina da. Kontsumitzailearen eskubideak ere berdinak dira urte osoan eta egoera orotan, merkealdia, sustapenak, salgai-hondarrak edo likidazioak izanik ere.



Produktuen kalitatea eta bermea ez dira aldatzen merkealdian.

Arazorik ez izateko

Produktu bat erosten duzun bakoitzean **eskatu eta gorde erosketa-txartela**. Publizitate-liburuxkak gordetzea ere komeni da; erreklamazioen bat egin behar izanez gero, beharrezkoak izango baitira.

Probatu eta aztertu beti erosi behar duzun hori. Legez debekatuta dagoen arren, saltzaileren batek merkealdia balia dezake produktu egokien artean produktu akastunak saltzeko.

Askotan arazoak sortzen dira akatsik ez duen produktu bat itzuli nahi badugu. Kontuan izan zenbait establezimendutan aukera hori onartzen dutela, baina beste batzuetan ez; beraz, eska ezazu **itzulketa-politikari**

buruzko informazioa produktu bat erosi baino lehen. Agian ez da berdina denda guztietan eta, beraz, oso garrantzitsua da itzulketak egiteko epea zein den eta dirua edo bale bat itzultzen ote duten galdetzea.

Ahal dela, kontsumoko arbitraje-sistemari atxikitako dendetan erostea gomendatzen dizugu. Atxikimendu hori kontsumitzailearentzako bermea da: gatazkaren bat izanez gero, establezimenduak arazoa azkar eta doan konpontzeko konpromisoa hartu duela jakingo duzu. ■



10 GOMENDIO

- 1 Egin zerrenda bat behar duzunarekin.
- 2 Prestatu aurrekontua, zenbat diru gasta dezakezun jakiteko.
- 3 Begiratu interesatzen zaizkizun produktuak Interneten erosketak egitera joan aurretik.
- 4 Ez erosi presiopean.
- 5 Erosi produktu baliagarriak eta beste denboraldi batzuetarako ere balio dutenak.
- 6 Ordaindu eskudirutan.
- 7 Eskatu eta gorde ordainagiria.
- 8 Probatu produktua erosi aurretik.
- 9 Itzulketa-politikari buruz galdetu.
- 10 Arazorik baldin baduzu, eskatu erreklamazio-orria.

Kontsumobide Jolasean

Zer egin behar duzu Pazko Astean eta udan?

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak "Kontsumobide Jolasean" programa antolatu du Pazko Asterako eta udarako.



Kontsumobide Jolasean prestakuntzako eskaintza ludikoa da, Gipuzkoako haurren oporretarako. Programa horren bitartez, hainbat jarduera ludikotan (tailerrak, jolasak, eskulanak...) doan parte hartzeko aukera izango dute, kontsumo arduratsua sustatzeko xedearekin.

Horretarako, egun bakoitzean gai bat landuko da tailer praktiko baten bitartez: dieta orekatua, publizitatea, birziklatzea, elikagaien etiketak eta erosteko irizpideak.

Dagokion tailerra burututakoan, hamaiketakoa egingo da, elikadura osasungarriaren garrantzia indartzeko.

Kontsumobide Jolasean programaren lehen esperientzia 2014. urtean egin zen. Guztira, 6-12 urteko 30 haurrek hartu zuten parte programan.

Kontsumobiden esperientzia oso aberasgarria dela uste dugu; haurrek asko ikasi izan dute modu atseginean.

Gurasoek ere positiboki balioetsi dute programa, "kontsumo arduratsua sustatzen" dela nabarmenduz; gainera, "oporretan haurrak bidaltzeko gune bat eskaintzen digu" adierazi zuten. Gehienek dute aurten ere berriro parte hartzeko asmoa.

Aurten, tailer eta jardueren gaiak aldatzea aurreikusi da. Eskaeretan haurrek zer adin duten ikusiko da eta edukiak nahiz dinamikak haien ezaugarrietara egokituko dira.

Tokia

Programa Kontsumobideren Prestakuntza Zentroan gauzatuko da:
Donostia
Zarategi pasealekua 82-84, atzealdea.
(Intxaurrenondo)

Informazioa eta izen-ematea

Tel.: 943 02 25 90

Helbide elektronikoa:
formacion-gipuzkoa@kontsumobide.es

Elikagaiak eta glutena

Europako araudiak aurrera egin du eta etiketa argiagoak lortu ditu, elikagaietan glutenik badagoen ala ez jakiteko.

Kontsumo-erakunde orok lan egin nahi du kontsumitzaileak zeharka babestearen alde. Kontsumo-arloko agintari eskudunek, gure osasunaren eta segurtasunaren eremuari erreparatu behar izaten diote gehienbat. Izan ere, Euskadiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuan horixe aipatzen da.

Europar Batasunaren esparruan, kontsumitzaileak babesteko lanean ari dira etengabe gure osasuna arriskuan jar dezaketen produktuen aurrean. Hori horrela izanik, elikagaien etiketak bereziki zaintzen dituzte.

Testuinguru horretan, 2014ko uztailaren 30ean **828/2014 Erregelamendua** onartu zen, elikagaietan glutenaren presentzia txikiari edo absentiari buruzko informazioa kontsumitzaileei helarazteko baldintzei buruzkoa. Araudi honen helburua zeliakoei laguntzea da, askotariko dieta izan dezaten eta haren premietarako egokiak diren produktuak identifikatu ahal izateko.

Erregelamendu berriaren arabera, baldintza jakin batzuk bete behar dituzte produktuetan txertatzen diren adierazpenek, glutenaren presentziari edo absentiari buruzko informazioa emateko garaian:

Glutenik ez:

Elikagaiak, kontsumitzaileari saltzen zaion moduan, **kg bakoitzeko 20 mg** gluten baino gutxiago izan beharko du, "glutenik ez" jarri ahal izateko.

Oso gluten gutxi:

Adierazpen hori jarri ahal izateko, glutendun zerealak izanik edo zereal horiekin egindako osagai bat edo gehiago badituzte, gluten-edukia murrizteko tratatuak izan behar dute elikagaiek.

Kontsumitzaileari saltzen zaion elikagaiaren **kg bakoitzeko gehienez ere 100 mg gluten** izan beharko du.

Oloa duten elikagaiak:

Oloa duten produktuen kasurako ere beste baldintza bat ezartzen da araudian. Goian aipatu ditugun bi adierazpenetako bat jarri ahal izateko, baldintza bat bete beharko da: oloa bereziki landu, prestatu eta/edo prozesatutenean, gariaren, zekalearen, garagarren edo horien aldaera hibridoan kutsadurarik ez izatea. **Elikagaiaren kg bakoitzeko gluten-edukia gehienez ere 20 mg izango da.** ■

Zeliakoek glutenarekiko intolerantzia iraunkorra izaten dute. Proteina hori garian, zekalean eta garagarrean dago. Zereal horietan dagoen glutenak zeliakoen osasunari kalte egin diezaiokete eta, beraz, oso garrantzitsua da glutenik ez kontsumitzea.





TELEFONIA – Eramangarritasunean atzera egiteagatik kobratzea

Ordaindu behar al dut eramangarritasunean atzera egiteagatik?

Ez, ez da legezkoa. Kontsumitzaileak eramangarritasuna bertan behera uzteko eskubidea baliatzen duenean operatzaile edo banatzaile baimenduak kontsumitzaileari kobratu nahi dion zenbateko oro abusuzkotzat jotzen da, kontzeptua edozein izanik ere: kudeaketa, fidantza, gordailua edo antzekoa.



BIDAIA KONBINATUAK - Prezioa garestitzea

Bidaia-agentzia batek kontsumitzaileak jada kontratatuta duen bidaiaren prezioa garestitu al dezake?

Araudiak ezartzen du bidaia konbinatu baten kontratuan jasotako prezioak, hasiera batean, ezin izango direla aldatu; betiere aldatzeko aukera hori eta dagozkion kalkuluak egiteko modalitateak kontratuan zehazki ezartzen direnean izan ezik.

Prezioaren aldaketa hori (berrikuspena) baliozkoa izango da soilik garraioen prezioa enpresaren esku ez dauden arrazoiengatik aldatzen bada (erregaiaren kostua igotzea/jaistea, zerbitzu jakin batzuen gaineko zergak igotzea/jaistea, diru-trukearen gaineko tasak aldatzea, ...).

Era berean, adierazi beharra dago bidaia aurreko 20 egunetan prezioan egindako goranzko igoera guztiak balio gabetuta geratuko direla.



ETXEBIZITZA - Abusuzko klausula

Etxebizitza bat erosteko asmoz 48.000 euro aurreratu nizkion enpresa saltzaileari. Adostutakoaren arabera, kontratua neuk deuseztatzen badut ordaindutakoaren % 50 galduko dut, eta eraikitzaileak deuseztatzen badu, ordaindutakoa gehi legezko interesak itzuliko dizkit. Abusuzko klausula al da hori?

Kontsumitzailearen babesari buruzko egungo arauan espresuki adierazten da abusuzko klausula izango dela kontratuan bi aldeen arteko elkarrekikotasunik eza dakarrena, bereziki kontsumitzaileak kontratuari uko egitean aurrez ordaindutako zenbatekoak enpresak beretzat atxikitzea dakarren klausula, eta klausula horrek, enpresak uko egiten duen kasuan, enpresa bezeroari kalte-ordain baliokidea ematera behartzen ez badu.

Beraz, proposatu den kasuan abusuzko klausula da, ez delako kalte-ordain baliokiderik aurrez ikusi.




Kontsulta Iezoguzu

Bidali zure kontsulta kontsumobide@kontsumobide.es helbidera edo sartu www.kontsumobide.eus webgunean.



Urdaiazpikoaren alegia



Artikulu bat erostean edo zerbitzu bat kontratatzean, ez jarri arreta bakarrik prezioan; beste alderdi batzuk ere ba dira garrantzitsuak: kalitatea, berme komertziala (legezko bermearen gehigarria dena) izatea, saldu ondoko zerbitzua, beste artikulu batzuekiko bateragarritasuna, etab.

Ezagutzen duzu José Rodaok idatzi zuen 'Urdaiazpikoaren alegia'? Gure ustez, oso adierazgarria da gomendio hori argitzeko...

*EN ESO CONSISTE
(Urdaiazpikoaren alegia)*

*Un ricachón mentecato,
ahorrador empedernido,
por comprar jamón barato
lo llevó medio podrido.*

*Le produjo indigestión,
y entre botica y galeno
gastó doble que en jamón
por no comprar jamón bueno.*

*Hoy afirma que fue un loco,
puesto que economizar
no es gastar mucho ni poco,
sino saberlo gastar.*

*José Rodao
(1865-1927)*



kontsumoBIDE

KONTSUMOKO
EUSKAL INSTITUTUA

INSTITUTO VASCO
DE CONSUMO

zuregandik gertu

BILBAO

Alameda Rekalde zumarkalea, 39 A
Tel. 94 403 15 00

DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN

Easo, 10
Tel. 943 02 25 47

VITORIA-GASTEIZ

Santiago, 11
Tel. 945 06 21 61

www.kontsumobide.eus



PERTSONA HELBURU

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO